

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Iruñeko katedralaren klaustroa zaharberritzen hasiko dira aurten

*Estalkiko, urak biltzeko eta hilarrietako lauzak jartzeko lanak egingo dira 2015ean*

Jueves, 12 de marzo de 2015

Iruñeko Santa Maria katedralaren klaustroa zaharberritzen hasiko dira aurten, gaur goizean Kulturako, Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinek iragarri duenez.

2015ean lehen fasea egitea aurreikusten da, Nafarroako Gobernuko Ondare Arkitektonikoaren Ataleko teknikariek idatzitako proiektuarekin bat etorritz. Proiektu horren arabera, klaustroan beharrezkoak diren lanak egitea proposatzen da ondorengo faseetan harri-fabrika zaharberritzen hasteko.

Zehazki. aurten proposatutako zereginak dira:

klaustroko harri-lauzak konpondu eta finkatzea; erreten eta zorroten berriak jartzea; teilaren estalduraren zati bat altxatzea eta klaustorako Barbazana kaperako kanalizazioko materiala kentzea; teila-estaldura berria jartzea eta berunezko adur-zapiak egikaritzea euri-urak bideratzeko; klaustorako kaperako mendebaldea garbitzea eta kaperako eskailerako pinakulua zaharberritzea, klaustro aldera dagoena ere. Lan horiek Construcciones Zubillaga S.A enpresari esleitu zaizkio 156.494,09 euroan.

Gainera, Ondare Historikoko teknikariek harri-fabrikari esku hartzeko zenbait proiektu idatziko dituzte, jarraian eta urtero egingo diren faseetan, klaustroa erabat zaharberritu ahal izateko.

Esku-hartze guztia egiteko 4 milioi euro beharko direla kalkulatu du, hasieran; nolahi ere, obra-proiektuak idaztetik ondorioztatzen dena errespetatuko da.



Lanak Construcciones Zubillaga S.A enpresari esleitu zaizkio 156.494,09 euroan.

Segurtasun edo osasungarritasuneko arrazoiak eragozten dutenean salbu, obrak klaustorako eta katedraleko lekuetara egindako gainerako bisitekin osagarriak izango dira.

### **Kalteak**

Departamentuko teknikariek azaldu dutenez, 2013. urtetik (urte horretan klaustroa kaltetzen zuten patologia konplexu eta kezkarriak hauteman ziren) premiazko zenbait esku-hartze eta azterketa asko egin dira (historiko-artistikoak, petrologikoak eta petrografikoak, eta bionarriadurakoak...).

Azterketa horien ondorioak Espainiako Kultur Ondarearen Institutuak 2014ko apirilaren 25ean egindako agiri batean jasota daude. Bertan, funtsean honako patologia hauek ikusten dira:

1. Harrizko materialari dagokionez, zatiak askatu izanaren ondoriozko hutsune eta galera bolumetrikokoak daude, bai eta disgregazio eta hare bihurtzeko prozesuena ere; esfoliazioak daude, ezkatzen bereizketa, plaken banantzea, higadura, zikinkeria, gordailuen pilaketa eta eraso biologikoa. Gainera, harriaren aldaketa kromatikoa ere agerian dago, bai eta elementu askoren deformazio eta hausturak ere, pinakuluak esaterako, tenkagailu eta sareekin behin-behinekoz lotuta daudenak.

2.- Polikromian, zikinkeria-zarakarra ikusten da, materiala altxatuta, anpuluak, urradurak, hutsuneak eta lurrunkortasuna.

3. Elementu metalikoetan, zikinak daude, herdoilduta, deformatuta, materia galdua eta bionarriatuta.

4. Azkenik, egurrezko elementuetan, hautsa eta zikinkeria dago, pitzadurak eta deformazioak, bai eta materia-galerak ere.

### **Klaustro gotikoa**

Katedraleko klaustro gotikoa eta alboko inguru kanonikalak Europako Erdi Aroko arkitekturaren multzo eder eta aberasgarrietarikoak dira. Oin karratukoa eta ia bi mendez eraikitakoa (1277-1472), lorategi nagusiaren inguruan altxatzen da. Alde bakoitza gabletetan amaitutako arku zorrotzekin ixten da (bi lerro zuzenek eta punta zorrotzek osatutako errematea), zutabeen txortek eutsita, eta haien traza konplikatuak baoa bertikalki zatitzen duten mainelete mehetan eusten dira.

Barneko horma-arte bakoitza gurutze-gangekin estaltzen da gargola eta pinakuluekin amaitutako kanpoko estribuekin. Gangen klabetan urteko hilabeteak irudikatzen dira, haizeak, zenbait ibai, Testamentu Berriko eszenak eta santuak.

Bestalde, kapitelen landaretzako apaingarri fin-finak dituzte eta garaiko bizimoduaren eszena asko, animaliak eta Genesia liburuko pasarteak. Horma-arte bakoitzaren hondoko hormak polikromatutako monumentu-eskulturararen azal landuekin aberastuta daude bereziki edo pinturekin edo eskulturarekin edertasunez apaindutako hilobiak.

### **Gehien bisitatzen den monumentuetako bat**

Iruñeko Santa Maria katedrala monumentu historiko-artistikoa izendatu zuten 1931ko ekainaren 3ko Dekretuaren bidez. Katedral-multzoa, Donejakue bidean, Nafarroan gehien bisitatzen den monumentuetako bat da. 2014an, 65.179 bisitari zenbatu ziren.

"Occidens. Descubre los orígenes" izeneko erakusketa ikus daiteke bertan, gainera. Bilduma horrek sari bat baino gehiago jaso du: Europako AADIP 2013 Saria, CORE77 2013 Diseinuaren Saria, FX2013 Barne Diseinuko Nazioarteko Saria eta 2014ko Europako Museoaren Saria, monumentu-multzoak duen aparteko balioa nahiz interesa areagotuz.